



**DBEDBLO-REN ZAZPIGARREN XEDAPEN
GEHIGARRIA BEHIN BEHINEAN
EZARTZEKO ORIENTABIDEA**

**ORIENTACIÓN PARA LA APLICACIÓN
PROVISIONAL DE LA DISPOSICIÓN
ADICIONAL SÉPTIMA DE LA LOPDGDD**

Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzan eta Gardentasunaren eta Datu Babesaren Andaluziako Kontseiluan hainbat kontsulta jaso dira galdetzen ea nola aplikatu behar den Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarriko lehenengo ataleko lehenengo paragrafoan ezarritakoa: *“Interesdunak identifikatzea iragarki bidezko jakinarazpenetan eta administrazio egintzen argitalpenetan”*.

Gertaera honek eraginda, eta helburu praktiko batekin, agintaritzaren artean orientabide bat proposatu behar izan dute interesdunen nortasun agiri nazionala, atzerritarren identifikazio-zenbakia edo bestelako agiri baliokidearen zabalkundea babesteko bermeak ezartzeko behin behinean.

Asmo horrekin, ausaz hautatu dute administrazio-egintzen argitalpenetan interesdunak direnak identifikatzeko argitaratuko diren lau zenbakien multzoa. Interesdun bakoitzaren identifikazio-kodeko zein lau zenbaki argitaratu behar diren ausaz zehaztu ahal izateko prozedura honela burutu zen: bost bola sartu ziren poltsa opakuan, bakoitza zenbaki batekin 1etik 5era, eta horietako bat atera zen ausaz. Prozesua 2019ko otsailaren 27an burutu zen AEPDn.

Ausaz hautatu zen bolak 4 zenbakia zuen. Beraz:

Nortasun agiri nazionala, atzerritarren identifikazio-zenbakia edo bestelako agiri baliokidea honela argitaratu beharko dira:

En la Agencia Española de Protección de datos, la Autoridad Catalana de Protección de Datos, la Agencia Vasca de Protección de Datos y el Consejo de Transparencia y Protección de Datos de Andalucía se han recibido múltiples consultas sobre la aplicación de lo establecido en el primer párrafo del apartado primero de la disposición adicional séptima *“Identificación de los interesados en las notificaciones por medio de anuncios y publicaciones de actos administrativos”* de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Esta circunstancia ha aconsejado que, con el fin de facilitar un criterio práctico, dichas autoridades propongan una orientación para la aplicación provisional de garantías de protección de la divulgación del documento nacional de identidad, número de identidad de extranjero, pasaporte o documento equivalente de los interesados.

Para ello, han seleccionado aleatoriamente el grupo de cuatro cifras numéricas que se van a publicar para la identificación de los interesados en las publicaciones de actos administrativos. El procedimiento para la determinación de forma aleatoria de las cuatro cifras numéricas a publicar del código de identificación de un interesado se realizó mediante el proceso de selección aleatoria en una bolsa opaca de una bola de entre cinco bolas numeradas del 1 al 5, realizado el 27 de febrero de 2019 en la AEPD.

La bola resultante fue la número 4, por lo tanto:

La publicación de documento nacional de identidad, número de identidad de extranjero, pasaporte o documento equivalente podrá realizarse de la siguiente forma:



- Nortasun Agiri Nazionalak 12345678X formatua badu, formatu horretan lau, bost, sei eta zazpigarren tokietan dauden digituak argitaratuko dira.

Adibidez: ***4567**.

- Atzerritarraren Identifikazio Zenbakiak L1234567X formatua badu, formatu horretan lau, bost, sei eta zazpigarren tokietan dauden digituak argitaratuko dira, baina ez lehenengo karaktere alfabetikoa.

Adibidez: ****4567*.

- Pasaporteak ABC123456 formatua badu, kontuan hartuta sei zifra bakarrik dituela, formatu horretan hiru, lau, bost eta seigarren tokietan dauden digituak argitaratuko dira, baina ez hiru karaktere alfabetikoak.

Adibidez: *****3456.

- Beste identifikazio mota bat erabiliz gero, dena delako identifikazio horrek gutxienez 7 zenbakizko digitu baditu, ezkerretik eskuinera zenbatuko dira digituak, baina karaktere alfabetikoak ez; eta honela jokatuko da: lau, bost, sei eta zazpigarren tokian dauden zenbakizko karaktereak argitaratuko dira.

Adibidez, identifikazioa honelakoa bada: XY12345678AB, honela argitaratuko da: *****4567***

- Beste identifikazio mota hori ez bada pasaportea eta zenbakizko 7 digitu baino gutxiago baditu, karaktere guztiak zenbatuko dira, alfabetikoak barne, aurreko prozedura bera erabilita, eta honela jokatuko da: lau, bost, sei eta zazpigarren tokian dauden aukeratuko dira.

Adibidez, identifikazioa honelakoa bada: ABCD123XY, honela argitaratuko da: *****23XY

Karaktere alfabetikoen ordeztasun eta argitaratu behar ez diren karaktereen ordeztasun, asterisko bana ipiniko da.

- Dado un DNI con formato 12345678X, se publicarán los dígitos que en el formato ocupen las posiciones cuarta, quinta, sexta y séptima.

En el ejemplo: ***4567**.

- Dado un NIE con formato L1234567X, se publicarán los dígitos que en el formato ocupen las posiciones, evitando el primer carácter alfabético, cuarta, quinta, sexta y séptima.

En el ejemplo: ****4567*.

- Dado un pasaporte con formato ABC123456, al tener solo seis cifras, se publicarán los dígitos que en el formato ocupen las posiciones, evitando los tres caracteres alfabéticos, tercera, cuarta, quinta y sexta.

En el ejemplo: *****3456.

- Dado otro tipo de identificación, siempre que esa identificación contenga al menos 7 dígitos numéricos, se numerarán dichos dígitos de izquierda a derecha, evitando todos los caracteres alfabéticos, y se seguirá el procedimiento de publicar aquellos caracteres numéricos que ocupen las posiciones cuarta, quinta, sexta y séptima.

Por ejemplo, en el caso de una identificación como : XY12345678AB, la publicación sería: *****4567***

- Si ese tipo de identificación es distinto de un pasaporte y tiene menos de 7 dígitos numéricos, se numerarán todos los caracteres, alfabéticos incluidos, con el mismo procedimiento anterior y se seleccionarán aquellos que ocupen las posiciones cuatro últimas posiciones.

Por ejemplo, en el caso de una identificación como: ABCD123XY, la publicación sería: *****23XY

Los caracteres alfabéticos, y aquellos numéricos no seleccionados para su publicación, se sustituirán por un asterisco por cada posición.



Honako orientabide hau izenpetzen duten agintariek proposatutako behin-behineko irizpidearen xedea da aldi berean lortzea ez dadila gertatu, xedapen gehigarri hau aplikatzeko formula bat baino gehiago erabiltzeagatik, dokumentu identifikatibo bera argitaratzea behin baino gehiagotan, eta argitalpen bakoitzean zenbakizko zifra posizio desberdinean agertzea, eta dokumentu guztiak erabilita zenbaki osoa osatu ahal izatea.

Horregatik, gomendatzen dute proposatutako formula hau erabiltzeko.

Gomendio hau behin-behinekoa da, harik eta eskumena duten gobernu organoek eta administrazio publikoek onartu arte zazpigarren xedapen gehigarria ezartzeko xedapenak.

El criterio provisional propuesto por las autoridades que suscriben la presente orientación pretende, así mismo, tratar de evitar que la adopción de fórmulas distintas en aplicación de la citada disposición pueda dar lugar a la publicación de cifras numéricas de los documentos identificativos en posiciones distintas en cada caso, posibilitando la recomposición íntegra de dichos documentos.

Por ello, recomiendan que la fórmula propuesta sea aplicada de forma generalizada.

La presente recomendación tiene carácter provisional hasta el momento en el que los órganos de gobierno y las administraciones públicas competentes aprueben disposiciones para la aplicación de la mencionada Disposición Adicional séptima.